EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Komunikaziorako Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Dirección de Comunicación

# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Gai nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Asuntos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriak 3**

**Vitoria-Gasteiz, 3 de octubre de 2017**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@euskadi.eus

**Lehendakaritza**

## GIZA ESKUBIDEEN RENÉ CASSIN SARIAREN DEIALDIA EGIN DUTE

Jaurlaritzaren Kontseiluak gaur onartu du René Cassin sariaren aurtengo deialdia egitea. Sari hori Jaurlaritzak ematen du Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez.

Sari horren helburua da publikoki goraipatu eta saritzea ibilbide pertsonal nahiz profesionalarekin gure gizartean giza eskubideak sustatzeko, defendatzeko eta zabaltzeko konpromisoaren lekukotza ematen duten pertsonak eta taldeak.

12.000 euroko diru-zenbatekoak eta ohorezko aipamen batek osatuko dute saria eta alor horretan nabarmentzen diren pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatuek jaso dezakete saria.

Hautagaitzak aurkezteko epea hilabetekoa da, deialdi ebazpena EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunean kontatzen hasita.

Saria Eusko Jaurlaritzak sortu zuen 2003an eta Rene Cassin jaunaren oroimenez ezarri zen sariaren izena. René Cassin Baionan 1887an jaiotako legelari eta epaile bat izan zen, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren inspiratzaile nagusia izan zena 1948an, eta 1968an Bakearen Nobel saria eman zioten; Giza Eskubideen Estrasburgoko Nazioarteko Institutua sortzeko baliatu zuen Nobel saria.

Saria Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala egin zen egunaren bueltan (abenduak 10) emango da.

**Gobernantza Publikoa eta Autogobernua**

## GOBERNUAK OSO BALORAZIO POSITIBOA EGIN DU EAJ-PNV ETA PSE ALDERDIEK EUSKAL SEKTORE PUBLIKO GUZTIA ANTOLATUKO DUEN LEGE BERRIA PRESTATZEKO EGIN DUTEN BATERAKO LANAREN GAINEAN

- **Bere lege-proposamena kontuan hartzeko aldeko irizpena adierazi du, erreferentziazko testua delako Euskadiko hiru erakunde-mailen antolamendua eta funtzionamendua modernizatzeko beharrari erantzuteko**

Gobernu Kontseiluak, gaur, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak talde legebiltzarkideek batera aurkeztutako "*Euskal Sektore Publikoare*n" lege-proposamenaren aldeko irizpena adierazi du.

Eusko Jaurlaritzaren ustez, bi alderdi politikoek aurkeztutako testua erreferentziazkoa da; izan ere, koherentzia ematen dio Euskadiko erakundeen bai antolamenduari, bai funtzionamenduari ere. Eremu publikoari, Euskadiko hiru erakunde-mailak kontuan hartuz, heltzen dion araudi-testua da.

Lege hori Eusko Jaurlaritzaren "Legegintza Programan" aurreikusten da. Hori dela-eta, Gobernua pozik dago bi taldeek lan hori batera egin dutelako; izan ere, aukera emango du etorkizuneko Euskal Sektore Publikoaren etorkizuneko Legearen onespena aurreratzeko.

### ERAGINKORTASUNA ETA EFIZIENTZIA

Legebiltzarraren ekimen horren jatorrian, euskal erakunde publikoak antolatzeko lege nagusi bilakatzeko xedea dago. Funtzionamendua eta betebeharrak arautzen ditu, erakunde publiko bakoitzaren eskumenak mugatzen ditu, administrazioen arteko lankidetzarako eta koordinaziorako betebeharra ezartzen du, baita bakoitzaren kontrol- eta erregisto-prozedurak ere. Funtsezkoa da Euskadiko administrazioen modernizazioari heltzeko, bereziki, Euskal Administrazio Publikoarenari; izan ere, azken horrek indarrean duen araudia laurogeiko hamarkadakoa da.

Eusko Jaurlaritzaren iritziz, lege hau beharrezkoa da Euskadiko administrazio publikoek administrazio-kultura berrira egokitzeko duten erronkari erantzuten baitio, gobernantza publiko berriaren irizpideetan oinarrituta, egungo gizarteak eskatzen duen bezala.

## Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

### BIDERATU BERRIA PROGRAMA, KRISIALDIAN DAUDEN ENPRESAK BERREGITURATZEKO ETA BERRABIARAZTEKO LAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritzak Bideratu Berria programa arautzen duen Agindua onartu du, krisialdian dauden enpresak berregituratzeko eta berrabiarazteko laguntzak ezartzen dituena.

Agindu horrek kontuan hartzen eta errespetatzen ditu aplikatzekoak diren erkidegoko gidalerroak, eta Europar Batasunak ezarritako laguntza-tipologiara eta horiek baimentzeko baldintzetara egokituta dago.

Onartutako testuaren xedea da Bideratu Berria programa arautzea Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailaren Industria arloan. Arlo horrek aurrerakin itzulgarrien bidez gauzatzen ditu laguntzak, publizitatearen, lehiaren eta objektibotasun printzipioen bidez emango direnak, espedientea konkurtso-teknika erabili gabe osatuta dagoen unearen arabera.

Emandako laguntzaren zenbatekoa planean jasotako berregituratze-neurrien guztizko kostuaren % 50era irits daiteke, gehienez 1.000.000 euroraino, baldin eta laguntzen onuradunak proportzio berean laguntzen badu bere baliabideekin haiek finantzatzen, barnean hartuta enpresaren biziraupenerako nahitaezkoak ez diren aktiboen salmenta, edo merkatu-baldintzetan lortutako kanpo-finantzaketaren bidez.

Laguntzaren zenbatekoa eta intentsitatea mugatu egin beharko dira enpresaren, haren akziodunen edo enpresa taldearen erabilgarritasun finantzarioen arabera berregituratzea ahalbidetzeko behar diren berregituratze-kostuetara soilik.

Laguntza itzultzea bermatzeko, enpresa onuradunaren erantzukizun pertsonala gorabehera, onuradunak sozietateak laguntza bermatzeko erabilgarri dituen ondasunak eta eskubideak aitortu beharko ditu. Horrelakorik badago, enpresa onuradunak laguntza ordaindu aurretik eratu beharko du bermea.

Agindu honetan araututako laguntzak urteko deialdi publikoaren mende jarriko dira.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### EUSKO JAURLARITZAK ONARTU EGIN DU "LISBOAKO ADIERAZPENA"RI ATXIKITZEA, ADINEKOEN AHALMENA AITORTZEKO ETA ZAHARTZE DUINA BERMATZEKO ETA, HORRELA, HIRUGARREN ADINAREN AUTONOMIA ETA PARTE-HARTZE SOZIALA SUSTATZEKO

Eusko Jaurlaritzak, Beatriz Artolazabal Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, gaur, "Lisboako Adierazpena"ri atxikitzea onetsi du; adierazpen horren helburua da adinekoen ahalmena aitortzea eta zahartze duina bermatzea eta, horrela, hirugarren adinaren autonomia eta parte-hartze soziala sustatzea.

Irailaren 21ean eta 22an, Nazio Batuen Erakundeak Lisboako Ministerio Biltzarra sustatu du: "Adin guztietarako gizarte jasangarria: denbora gehiagoz bizitzearen ahalmenaz ohartzea". Europarako Nazio Batuetako Batzorde Ekonomikoko Zahartzeari buruzko Ministerioko Biltzarrak antolatu du, Portugalgo Gobernuarekin lankidetzan. Ekitaldian, hitzaldiak, eztabaidak, erakusketak eta analisiak egon ziren adituen paneletan.

Lisboako Biltzarraren itxieran, Europarako Nazio Batuetako Batzorde Ekonomikoko kideek konpromisoa hartu zuten, adierazpen baten bidez, "zahartze aktiboa sustatzeko, enpresek adin gehiagoko langileen esperientzia baloratzeko neurriekin". Lisboako Adierazpen horrekin bat egin du orain Eusko Jaurlaritzak, eta, bertan, 2022ra arte zahartzearen arloan bete beharreko helburuak zehazten dira.

Dokumentuak neurriak ezartzeko eskatzen du, adin guztietan langabeziaren aurka borrokatzeko, soldatetan genero-arrakala murrizteko, pentsio-sistemak erreformatzeko, bizitza-luzera handitu dela kontuan hartzeko, eta erretiro goiztiarrari alternatibak bilatzeko.

Lisboako Adierazpenak, bestalde, adinekoen ahalmena aitortzeko eta zahartze duina bermatzeko eta, horrela, hirugarren adinaren autonomia eta parte-hartze soziala sustatzeko ere eskatzen du.

Hori dela eta, eta honako alderdi hauek kontuan hartuta:

- Eusko Jaurlaritzak, bere sailetatik eta, bereziki, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailetik, zenbait politika garatzen ditu, gure adinekoek bizitza erosoagoa, lagunkoiagoa eta ongizate gehiagokoa izateko.

- Age-friendly Environments Programme nazioarteko sarea osatzen duten 400 hiri eta udalerrietatik, 50 Euskadin daude.

- Euskadik Euskadi Lagunkoia sarea du, adinekoekin lagunkoiak diren udalerriek osatzen dutena, eta erakunde, enpresa eta unibertsitateak ari zaizkio atxikitzen.

- Udalerrien artean zahartze aktiboari buruzko esperientziak partekatzeak atea zabaltzen du trukerako eta ikaskuntzarako baterako lana egiteko; horrek eragina izango du gure herritarren ongizatean.

- Euskadiko eta Europako gizarte berrian, erronka demografikoa, familia, gazteria, haurrak eta adinekoak dira lehentasunezko helburuak ongizatea sortzeko prozesuan; horrek eragina izango du gure eguneroko bizitzan, zeina humanoagoa, solidarioagoa eta atseginagoa bilakatuko baita pertsona guztiontzat.

- Lisboako Adierazpena oinarri bikaina da onartzeko denbora gehiago bizitzeak herritarrei eta gizarteari gizarte-ahalmen handia ematen dietela. Europako estatu eta herrialdeen baterako ekintza horren bidez, Jean Claude Juncker Europako Batzordeko presidenteak sustatutako Europako Gizarte Oinarriaren garapena hobetuko da, adin guztientzako Europar Batasuna eraikitzeko, eta belaunaldi guztiek gizarte berri horretan aktiboki laguntzea sustatuko da.

Hori guztia dela eta, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, gaur eginiko bileran aurretik erabakia hartuta, Gobernu Kontseiluak erabaki du “Lisboako Adierazpena”ri atxikitzea.

Lisboako Adierazpenaren ondorioak 2018ko otsailean New Yorken egingo den Nazio Batuen Gizarte Garapeneko Batzordean aztertuko dira.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

# LANBIDEK 10 MILIOI EURO BIDERATU DITU LANGABEZIAN DAUDEN GAZTEEN PRESTAKUNTZARAKO ETA KONTRATAZIORAKO

Eusko Jaurlaritzak, Beatriz Artolazabal Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, onetsi egin du Euskal Enplegu Zerbitzuak hamar milioi euro bideratzea langabezian dauden gazteen prestakuntzarako eta kontratazioko diru-laguntzetara, Europako Gizarte Funtsaren Gazte Enplegurako 2014-2020ko Programa Operatiboaren esparruan.

Deialdi horren helburua da indarrez eragitea profesionaltasun-egiaztagiria (aurrez aurreko modalitatean) eskuratzeko ikaskuntzarako eta prestakuntzarako kontratuari lotutako prestakuntza dualaren dinamizazioan, eta Gazteen Bermerako Sistema Nazionalean alta emanda dauden langabezia-egoeran dauden gazteei baino ez dago zuzenduta. Prestakuntza dualeko proiektuen tipologia horrekin batera, deialdiak aurreikusten du kontratazio-konpromisoko proiektuen beste tipologia klasikoago bat, alegia, hasierako prestakuntza egitea eta, prestakuntzaren amaieran, kontratazioa.

Laguntza horiek finantzatzeko baliabide ekonomikoak, guztira, 10.000.000 euro dira. Prestakuntza-ekintzak finantzatzeko, 3.132.000 euro bideratuko dira, eta 6.868.000 euro, lan-kontratuak egiteagatiko laguntzetarako.

Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta kontuan hartuta, 16 eta 29 urte bitarteko euskal gazteen langabezia % 15,9koa da, urteko bigarren hiruhilekoan. Urtebetean, zazpi puntu baino gehiago egin du behera, eta % 23,2 izatetik % 15,9ra iritsi da.

Euskadin, hainbat jarduera egiten ari dira gazteekin Gazte Bermearen eremuan, eta nabarmentzekoak dira Lanbidek urtero egiten dituen Lehen Aukera programaren deialdiak eta gazte langabeak kanpoan dauden euskal enpresen lan-zentroetan praktiketarako kontratatzeko bideratzen dituen laguntzen deialdiak, bai eta 2015eko deialdi berezia ere, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2015eko abuztuaren 28ko Aginduaren bidez garatutakoa, Europako Gizarte Funtsaren lagundutako finantzaketara jotzeko deialdian parte hartzekoa, zeina Gazte Enplegurako 2014-2020ko Programa Operatiboaren tarte autonomikoan kokatzen baita.

**Eskakizunak**

Prestakuntza-ekintzetarako laguntzen diru-laguntzak honako hauek eskatu ahalko dituzte:

- Pertsona fisikoak edo juridikoak izan eta forma juridikoa edozein dela ere, prestakuntza jaso duten pertsonak bertan zuzenean kontratatuko dituzten erakundeak edo enpresak. Kanpoan geratzen dira administrazio publikoak eta erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde

publikoak eta sektore publikoa eratzen duten gainerako erakundeak eta aldi baterako lanen enpresak, langileak lagatzeko enpleguetarako.

- Prestakuntza pribatuko edo publikoko erakundeak, deialdi hau argitaratu aurretik Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatutako prestakuntza-erakundeen erregistroan edo enplegurako prestakuntza-erakundeen bestelako erregistro autonomiko batean edo prestakuntza erakundeen Estatuko erregistroan inskribatuta eta/edo egiaztatuta daudenak, diru-laguntzaren helburu diren prestakuntza-ekintzei dagozkien prestakuntza-espezialitateak emateko

Eta lan-kontratuak egiteko laguntzetarako:

- Pertsona fisikoak edo juridikoak izan eta forma juridikoa edozein dela ere, kontratazioak egiten dituzten erakunde edo enpresak, baina kanpoan geratzen dira administrazio publikoak eta erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta sektore publikoa eratzen duten gainerako erakundeak eta aldi baterako lanen enpresak, langileak lagatzeko enpleguetarako.

**Formalizazioa**

Prestakuntza-ekintzak egiteko laguntzak elektronikoki eskatu ahalko dira, LAN-F aplikazio informatikoaren bidez. Bestalde, lan-kontratuak egiteko laguntzak Euskal Enplegu Zerbitzuaren zerbitzu zentraletan izapidetu ahalko dira, Lanbidek duen edozein enplegu-bulegotan.

Lehen laguntza-ildoa deialdia (Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez) EHAAn argitaratu eta biharamunetik hasita aurtengo urriaren 31ra arte izapidetu ahalko da. Lan-kontratuak egiteko laguntzak lan-kontratua egiten den egunean eskatu ahalko dira, eta hamar egun baliodunez.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

**LANBIDEK 3,5 MILIOI EURO BIDERATU DITU GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO PROIEKTU BEREZIAK SUSTATZERA, ENPLEGURA JOTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN KOLEKTIBOENTZAT**

Beatriz Artolazabal Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak Gobernu Kontseiluari Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakiaren berri eman dio; horren bidez, enplegura jotzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten langile okupatu eta langabeak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektu bereziak garatzeko laguntzen deialdia onetsi da. Laguntza horietarako, 3,5 milioi euroko aurrekontua egongo da.

Deialdiaren helburua da laguntzak ematea, prestakuntzako, orientazioko eta enpleguko ekintzak edo horietan parte hartzen duten pertsonen enplegagarritasuna modu esanguratsuan hobetzen duen beste edozein neurri konbinatzen dituzten proiektuak finantzatzeko.

**Eskakizunak**
Deialdi honek aipatzen dituen diru-laguntzak honako erakunde hauek eskatu ahalko dituzte:

- Foru-aldundiak eta foru-sektore publikoa
- Euskadiko udalak eta tokiko sektore publikoko erakundeak.
- EAEko sektore publikoko erakundeak.
- Tokiko edo eskualdeko garapenerako agentziak eta horietako elkartze-erakundeak.
- Irabazi-asmorik gabeko prestakuntza-erakunde pribatuak, Prestakuntzako Erakundeen Euskal Erregistroan inskribatuta daudenak.
- Hezkuntza Sailaren edo Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren mendeko prestakuntza-erakunde publikoak.
- EAEn egoitza edo ordezkaritza duten erakundeak, merkataritza-jarduera nagusiki helburu sozial baten mende dutenak, azken hamar urtean, gutxienez beren onuren % 70 erakundearen helburu soziala lortzeko berrinbertitu dutenak.

**Formalizazioa**
Eskabideak telematikoki aurkeztuko dira, LAN-F aplikazio informatikoaren bidez.

Eskabideak aurkezpen-hurrenkeraren arabera aztertuko dira eta hurrenkera berean onetsiko dira deialdian aurreikusitako eskakizunak eta baldintzak betetzen dituztenak, harik eta funtsak agortu arte.

Laguntza horiek eskatzeko hasierako data deialdi hau EHAAn argitaratu eta hurrengo eguna izango da, eta 2017ko urriaren 31ra arte eskatu ahalko dira.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

**EUSKO JAURLARITZAK GAZTEEN ITZULERARAKO PROGRAMA BERRIA ONETSI DU; 1.766.667 EURO BIDERATUKO DITU PROGRAMAMARA**

Beatriz Artolazabal Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak Gobernu Kontseiluan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren akordioaren berri eman du; akordio horren bidez, 2017. urterako gazteak itzultzeko laguntzen deialdia onetsi du, gazteak EAEko lan-zentroetan kontratatzeko. Guztira, 1.766.667 euro bideratuko dira.

Programa aitzindaria da; kalitateko enplegua sustatzen du, beste herrialde edo autonomia-erkidego batean lanean ari diren 35 urtetik beherako gazteak Euskadira itzuli ahal izateko. Laguntza-ildoa bikoitza izango da: alde batetik, 35 urtetik beherakoak diren eta kanpoan gutxienez 12 hilabete lanean daramatzaten euskaldunak kontratatzen dituzten euskal enpresek diru-laguntza jasoko dute, soldataren zati bat ordaintzeko; bestetik, kontratatutako gazteek laguntza bat jaso ahalko dute, joan-etorrien gastuak ordaintzeko.

Enpresentzako laguntzak gutxienez urtebeteko iraupena duten kontratuetara bideratuko dira, eta plusak emango zaizkie kontratu mugagabeak sinatzen dituzten enpresei.

**Eskakizunak**

Laguntza horiek jaso ahal izateko, 35 urtetik beherakoak kontratatzen dituzten euskal enpresek (helbide soziala eta fiskala EAEn izan behar dute eta lan-zentroa Euskadin finkatuta) honako eskakizun hauek bete behar dituzte:

- Euskal Autonomia Erkidegoarekin lotura izan. Euskadirekin lotura dutela ulertzen da honako eskakizun hauek betetzen dituzten pertsonek:
    - EAEn jaio izana.
    - EAEn administrazio-egoitza egiaztatzea, kanpora irten aurretik, behintzat bi urtez.
    - Ikasketak aurrez aurre EAEn egin izana eta bertan titulazio ofizialen bat eskuratu izana.
- Atzerrian bizi izatea edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora, gutxienez lan-kontratua hasi aurreko 12 hilabetean.
- Euskal Autonomia Erkidegoan lan egin ez izana, gutxienez lan-kontratua hasi aurreko 12 hilabetean.
- Aurretik enpresa onuradun kontratatzailearekin edo enpresa-talde berari dagokion enpresaren batekin lan-harremanik eduki ez izana.
- Eskainitako postua betetzeko lanbide-profil egokia izatea.
- Euskal Autonomia Erkidegoan lanbide- eta bizitegi-egonaldi konpromisoa eskuratzea, eta dagokion erroldan alta ematea, kontratua hasi eta lehen 30 egunean; hala mantendu beharko da, behintzat kontratuak iraun bitartean.

- Euskal Autonomia Erkidegora itzultzeko borondatea adierazi izana eta enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotea Enplegu Zerbitzu Publikoan. Urrats hori lan-kontratua zehaztu aurretik eman daiteke.
- Langabezian egotea kontratua formalizatzeko unean.
- Honako talderen batean egotea, egindako ikasketen edo titulazioaren arabera:
  - Unibertsitate-titulazioa:
  - Unibertsitateaz kanpoko titulazioa:
    - Goi Mailako Heziketa Zikloa (LHII)
    - Erdi Mailako Heziketa Zikloa (LHI) edo Oinarrizko Lanbide Heziketa.
    - Profesionaltasun-egiaztagiria.
  - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
  - Ikasketarik gabea.
- Gazteen Itzulera Programako parte-hartzailea izatea kontratazioaren aurretik, jarraian adierazitako paragrafoan ezarritako baldintzetan.

**Formalizazioa**
Eskabideak http://www.lanbide.net orrian dagoen eredu ofizialaren bidez aurkeztu beharko dira.

Eskabideak aurkezpen-hurrenkeraren arabera aztertuko dira eta hurrenkera berean onetsiko dira deialdian aurreikusitako eskakizunak eta baldintzak betetzen dituztenak, harik eta funtsak agortu arte.

Gazteak kontratatzeko diru-laguntza eskatzeko epea deialdi hau EHAAn argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2017ko azaroaren 10ean amaitu. Joan-etorrietarako gastuen diru-laguntza eskatzeko, epea, kasu bakoitzean, lan-kontratua formalizatu eta biharamunean hasiko da eta 2018ko urtarrilaren 31n amaitu.

## Hezkuntza

### DOKTORE IKERTZAILEEN MUGIKORTASUN-PROGRAMA

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du doktore ikertzailearen mugikortasun-programa deitzen duen agindua.

120.000 diru-kopuruarekin, deialdi honek diru-laguntzak eskaintzen ditu ikerketa-zentroetan egonaldiak egiteko –dedikazio esklusiboarekin-, I+G+i-ko organismo eta zentroetako unibertsitate-irakasleen eta ikertzaileen mugikortasun geografikoa sustatzeko eta haien gaitasunak eta ikerketa-taldeen lehiakortasuna hobetzeko helburuz.

Laguntza hauen onuradun izan daitezke Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agente gisa kreditatutako entitateak. Euskaditik kanpo kokatutako ikerketa zentroetan egonaldiak egingo dituztenak, berriz, laguntzen eskatzaile den entitatearekin lan-harremana duten ikertzaileak izango dira. Ikertzaile horiek doktore izan beharko dute, eta laguntza jasoko duen entitatean gutxienik bi urteko antzinatasuna.

Destinoko zentroan egingo duen egonaldian, harrera-ekipoaren lan-ildoan integratuta dagoen ikerketa-proiektu bat, edo trukeak eta maila handiko lotura zientifikoak ezartzera bideratutako beste jarduera batzuk egin beharko ditu ikertzaileak. Egonaldi hau 2018 urtean burutu beharko da, eta gutxienik bi hilabete eta gehienez sei hilabeteko iraupena izango du.

2017 urte honetan –iazko deialdiaren bidez- 21 euskal ikertzailek jaso dute ikerketa atzerriko hainbat herrialdetan burutzeko laguntza, hala nola, Erresuma Batuan, Polonian, Norvegian, Estatu Batuetan, Kanadan, Australian eta Argentinan. Horien artean 17 ikertzaile UPV/EHUko ikertzaileak ziren, beste bi Oinarrizko eta Bikaintasunezko Ikerketa Zentroetakoak (BERC), eta beste biak Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroetakoak (CIC).

## Hezkuntza

### 146.250 EURO ATZERRIKO HIZKUNTZA INDARTZEKO, LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOETAN

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du agindu bat, heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeetan 2017-2018 ikasturtean zehar atzerriko hizkuntza indartzeko laguntzak deitzen dituena.

146.250 euroko diru-kopurua duen deialdi honek laguntzak ematen ditu Lanbide Heziketako zikloetako ikasleei atzerriko hizkuntza irakasteko, ikastetxean bertan eta eskola-orduetatik kanpo antolaturiko eskolak. Ikastaro horiek gutxienez 80 eta gehienez 100 orduko iraupena izan beharko dute.

Mintzamenaren komunikazio-gaitasuna landuko da bereziki ikastaro horietan ikasleekin, solasaldiak eta ahozko azalpenak. Ikastaroa antolatu duen ikastetxeko Goi Mailako zein Erdi Mailako heziketa zikloetako ikasleek parte hartu ahal izango dute ikastaro horietan. Deialdi honen bidez lagundu ahal izateko, hizkuntza bakoitzeko taldean gutxienez 10 ikasle egongo dira, eta gehienez 20.

**Presidencia**

## CONVOCADO EL PREMIO RENÉ CASSIN DE DERECHOS HUMANOS

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la convocatoria para este año del Premio René Cassin que concede el Ejecutivo vasco, a través de la Dirección de Víctimas y Derechos Humanos.

El objetivo de este premio es reconocer públicamente y premiar a aquellas personas o colectivos que, a través de su trayectoria personal o profesional, dan testimonio de su compromiso en la promoción, defensa y divulgación de los derechos humanos en nuestra sociedad.

Podrán optar a este premio, dotado con 12.000 euros y una distinción honorífica, todas aquellas físicas o jurídicas, públicas o privadas que se destaquen en este ámbito.

El plazo de presentación de las candidaturas es de un mes, a partir del día siguiente de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

El premio fue creado por el Gobierno Vasco en 2003 y debe su nombre a René Cassi, jurista y juez nacido en Bayona en 1887, considerado como el principal inspirador de la Declaración Universal de los Derechos Humanos y merecedor en 1968 del Nobel de la Paz, premio que consagró a la creación del Instituto Internacional de Derechos Humanos de Estrasburgo.

Tradicionalmente el premio es entregado en las fechas aproximadas al 10 de diciembre, día en el que se conmemora la Declaración Universal de Derechos Humanos.

## Gobernanza Pública y Autogobierno

# EL GOBIERNO VALORA MUY POSITIVAMENTE EL TRABAJO CONJUNTO DE EAJ-PNV Y PSE PARA ELABORAR UNA NUEVA LEY QUE ORDENE TODO EL SECTOR PÚBLICO VASCO

- **Manifiesta criterio favorable a la toma en consideración de su proposición de ley porque es un texto de referencia para abordar la necesaria modernización de la organización y funcionamiento de los tres niveles institucionales de Euskadi**

El Consejo de Gobierno ha manifestado hoy su criterio favorable a la Proposición de Ley *"del Sector Público Vasco"* presentada, conjuntamente, por los grupos parlamentarios Nacionalistas Vascos-Euzko Abertzaleak y Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak.

El Gobierno Vasco cree que el texto presentado por ambas formaciones políticas es un texto de referencia que aporta coherencia, tanto a la organización como al funcionamiento, del conjunto institucional de Euskadi. Es un texto normativo que aborda lo público atendiendo a los tres niveles institucionales de Euskadi.

Esta ley está contemplada en el "Programa Legislativo" del Gobierno Vasco. Por eso, el Ejecutivo celebra que ambos grupos hayan realizado este trabajo conjunto en la medida que permitirá adelantar la aprobación de la futura Ley del Sector Público Vasco.

## EFICACIA Y EFICIENCIA

Esta iniciativa parlamentaria nace con vocación de convertirse en ley de cabecera para ordenar el conjunto institucional público vasco. Regula su funcionamiento y obligaciones, delimita las competencias de cada entidad pública, establece la obligación de colaboración y coordinación entre administraciones y los procedimientos de control y registro de cada una. Es clave para abordar la modernización de las administraciones públicas de Euskadi, en especial, la Administración Pública Vasca, cuya normativa en vigor data de los años ochenta.

El Gobierno Vasco considera que es una ley necesaria que responde al reto de las administraciones públicas de Euskadi de adaptarse a la nueva cultura administrativa, basada en los criterios de la nueva gobernanza pública, tal y como exige la sociedad actual.

## Desarrollo Económico e Infraestructuras

### PROGRAMA BIDERATU BERRIA PARA AYUDAS DESTINADAS A LA REESTRUCTURACIÓN Y RELANZAMIENTO DE EMPRESAS EN CRISIS

El Gobierno Vasco ha aprobado la orden por la que se regula el programa Bideratu Berria, que establece ayudas destinadas a la reestructuración y relanzamiento de empresas en crisis.

Esta orden tiene en consideración y respeta las Directrices Comunitarias de aplicación, y está adaptada a la tipología de ayudas establecidas por la Unión Europea y a las condiciones para la autorización de las mismas.

El texto aprobado tiene por objeto regular el programa Bideratu Berria en el área de Industria del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras, destinado materializar ayudas a través de anticipos reintegrables, que se otorgarán bajo los principios de publicidad, concurrencia y objetividad, en función del momento en que el expediente esté completo sin utilizar la técnica concursal.

El importe de la ayuda concedida podrá alcanzar el 50% del coste total de las medidas de reestructuración incluidas en el plan, hasta un máximo de 1.000.000 euros, siempre que la beneficiaria de las ayudas contribuya en la misma proporción con sus propios recursos a la financiación de aquéllas, incluida la venta de activos que no sean indispensables para la supervivencia de la empresa, o mediante financiación externa obtenida en condiciones de mercado.

El importe y la intensidad de la ayuda deberán limitarse a los costes de reestructuración estrictamente necesarios para permitir la reestructuración en función de las disponibilidades financieras de la empresa, de sus accionistas o del grupo empresarial del que forme parte.

A fin de garantizar el reintegro de la ayuda, con independencia de la responsabilidad personal de la empresa beneficiaria, ésta deberá declarar los bienes y derechos disponibles por la sociedad para garantizar la ayuda. En caso de que existieran, la empresa beneficiaria habrá de constituir la garantía con carácter previo al abono de la ayuda.

Las ayudas reguladas en la presente Orden serán objeto de convocatoria pública anual.

## Empleo y Políticas Sociales

**EL GOBIERNO VASCO APRUEBA SU ADHESION A LA 'DECLARACIÓN DE LISBOA' PARA RECONOCER EL POTENCIAL DE LAS PERSONAS MAYORES Y GARANTIZAR UN ENVEJECIMIENTO CON DIGNIDAD, PROMOVIENDO LA AUTONOMÍA Y LA PARTICIPACIÓN SOCIAL DE LA TERCERA EDAD**

El Gobierno Vasco ha aprobado hoy su adhesión a la 'Declaración de Lisboa' que pretende reconocer el potencial de las personas mayores y garantizar un envejecimiento con dignidad, promoviendo la autonomía y la participación social de la tercera edad.

Durante los días 21 y 22 de septiembre la Organización de Naciones Unidas ha impulsado la Conferencia Ministerial de Lisboa denominada 'Una sociedad sostenible para todas las edades: darse cuenta del potencial de vivir más tiempo' y que concretamente ha estado organizada por la Conferencia Ministerial sobre el Envejecimiento de la Comisión Económica de las Naciones Unidas para Europa, en cooperación con el Gobierno de Portugal. Dicho evento contó con conferencias, debates, exposiciones y análisis en paneles de personas expertas.

En la clausura de la Conferencia de Lisboa los miembros de la Comisión Económica de Naciones Unidas para Europa se comprometieron, en una declaración, a "impulsar el envejecimiento activo con medidas para que las empresas valoren la experiencia de los trabajadores de más edad". En esa Declaración de Lisboa, a la que ahora se sume el Gobierno Vasco, se definen los objetivos a cumplir hasta 2022 en materia de envejecimiento.

El documento apela a implementar medidas para luchar contra el desempleo en todas las edades, reducir la brecha de género en los salarios, reformar los sistemas de pensiones para que tengan en cuenta el aumento de la longevidad y buscar alternativas a la jubilación precoz.

La declaración de Lisboa también insta a reconocer el potencial de las personas mayores y a garantizar un envejecimiento con dignidad, promoviendo la autonomía y la participación social de la tercera edad.

Por ello, y teniendo en cuenta que:

- El Gobierno Vasco desarrolla desde sus diversos departamentos y, especialmente desde el de Empleo y Políticas Sociales, diversas políticas dirigidas a la consecución de una vida más cómoda, amigable y con el mayor bienestar para nuestras personas mayores.

- 50 de las 400 ciudades y municipios que forman la red internacional Age-friendly Environments Programme están en Euskadi.

- Euskadi cuenta con la red denominada Euskadi Lagunkoia de municipios amigables con las personas mayores a la que se están adhiriendo organizaciones, empresas y universidades.

- Compartir experiencias entre municipios sobre el envejecimiento activo abre la puerta a un trabajo conjunto de intercambio y aprendizaje que redunda en el bienestar de nuestra ciudadanía ya que compartir experiencias y buenas prácticas abre la puerta a un trabajo conjunto de intercambio y aprendizaje que redunde en el bienestar de nuestra ciudadanía.

- En la nueva sociedad vasca y europea el reto demográfico, la familia, la juventud, la infancia y las personas mayores son objetivos prioritarios en el proceso de generación de bienestar que va a revertir en nuestra vida cotidiana, más humana, solidaria y satisfactoria para todas las personas.

- la Declaración de Lisboa constituye una base excelente para reconocer que el hecho de vivir más tiempo ofrece a la ciudadanía y a la sociedad un gran potencial social. Esa acción común de los estados y países europeos favorece el desarrollo del Pilar Social de Europa promovido por el presidente de la Comisión Europea, Jean Claude Juncker, en la construcción de una Unión Europea para todas las edades y promueve que todas las generaciones contribuyan activamente a esa nueva sociedad.

Por todo ello, a propuesta de la Consejera de Empleo y Políticas Sociales, y previa deliberación en la sesión celebrada hoy, el Consejo de Gobierno ha decidido adherirse a la 'Declaración de Lisboa'.

Las conclusiones de la Conferencia de Lisboa serán abordadas en la Comisión de Desarrollo Social de las Naciones Unidas que se celebrará en Nueva York en febrero de 2018.

**Empleo y Políticas Sociales**

## LANBIDE DESTINA 10 MILLONES DE EUROS A SUBVENCIONES PARA LA FORMACIÓN Y CONTRATACIÓN DE JÓVENES EN SITUACIÓN DE DESEMPLEO

El Gobierno Vasco, a propuesta de Beatriz Artolazabal, Consejera de Empleo y Políticas Sociales, ha aprobado que Lanbide-Servicio Vasco de Empleo destine diez millones de euros a subvenciones para la formación y contratación de jóvenes en situación de desempleo dentro del marco del Programa Operativo de Empleo Juvenil 2014-2020 del Fondo Social Europeo.

Esta convocatoria pretende incidir con fuerza en la dinamización de la formación dual vinculada al contrato para la formación y el aprendizaje asociado a la obtención de un certificado de profesionalidad en modalidad presencial, y está dirigida con carácter exclusivo a jóvenes en situación de desempleo de alta en el Sistema Nacional de Garantía Juvenil (SNGJ). Junto con esta tipología de proyectos de formación dual, la convocatoria contempla otra tipología de proyectos de compromiso de contratación más clásico, consistente en una formación inicial y una contratación posterior a la finalización de la formación.

Los recursos económicos destinados a financiar esta ayudas ascienden a un importe total de 10.000.000 euros. A la financiación de las acciones formativas se destinarán 3.132.000 euros y 6.868.000 euros se destinarán a las ayudas por la celebración de los contratos de trabajo,

Según la Encuesta de Población en Relación con la Actividad (PRA) la tasa de paro de las personas jóvenes vascas entre 16 y 29 años es del 15,9% en el segundo trimestre de este año. En un año ha bajado en más de siete puntos, pasando del 23,2% a ese 15,9%.

En el País Vasco, se están desarrollando distintas actuaciones con jóvenes en el ámbito de Garantía Juvenil, siendo las más destacadas las convocatorias anuales de Lanbide del programa Lehen Aukera y de ayudas destinadas a la contratación en prácticas de personas jóvenes desempleadas en centros de trabajo de empresas vascas situados en el exterior, así como la convocatoria específica del año 2015 desarrollada por la Orden de 28 de agosto de 2015, del Consejero de Empleo y Políticas Sociales, de participación en la convocatoria para el acceso a la cofinanciación de Fondo Social Europeo, que se enmarca en el tramo autonómico del Programa Operativo de Empleo Juvenil del País Vasco 2014-2020.

**Requisitos**

Podrán solicitar las subvenciones para las ayudas por las acciones formativas:

- Las entidades o empresas, sean personas físicas o jurídicas e independientemente de su forma jurídica, de carácter privado, que

vayan a realizar directamente en las mismas las contrataciones de las personas formadas. Están excluidas las Administraciones Públicas y los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y demás entidades que integran el sector público, así como las empresas de trabajo temporal para empleo de puesta a disposición.

- Las entidades de formación privadas o públicas, acreditadas y/o inscritas con anterioridad a la publicación de esta convocatoria en el Registro de entidades de formación gestionado por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, en cualquier otro Registro de entidades de formación para el empleo de carácter autonómico o en el Registro Estatal de Entidades de Formación, para la impartición de las especialidades formativas a las que corresponden las acciones formativas por las que solicitan subvención

Y para las ayudas por la realización de los contratos de trabajo:

- Las entidades o empresas, ya sean personas físicas o jurídicas, de carácter privado, que realicen las contrataciones, excluidas las Administraciones Públicas y los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y demás entidades que integran el sector público, así como las empresas de trabajo temporal para empleo de puesta a disposición.

**Formalización**
Las ayudas para la realización de las acciones formativas podrán solicitarse de forma electrónica, a través de la aplicación informática LAN-F. Por su parte, las ayudas para la realización de contratos de trabajo se pueden tramitar en los Servicios Centrales de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, en cualquiera de las Oficinas de Empleo de Lanbide.

La primera línea de ayudas podrá tramitare desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria (mediante Resolución del Director General de Lanbide) en el BOPV y hasta el 31 de octubre de este año. Las ayudas para la realización de contratos de trabajo podrán pedirse el día de la celebración del contrato de trabajo y durante diez días hábiles.

## Empleo y Políticas Sociales

**LANBIDE DESTINA 3,5 MILLONES DE EUROS A IMPULSAR PROYECTOS SINGULARES DE INSERCIÓN SOCIO-LABORAL PARA COLECTIVOS CON DIFICULTADES PARA ACCEDER AL EMPLEO**

Beatriz Artolazabal, Consejera de Empleo y Políticas Sociales ha trasladado al Consejo de Gobierno el acuerdo del Consejo de Administración de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, por el que se aprueba la convocatoria de Ayudas para el Desarrollo de Proyectos Singulares de inserción socio-laboral para personas trabajadoras ocupadas y desempleadas con dificultades de acceso al empleo o mantenimiento del mismo. Estas ayudas contarán con un presupuesto de 3,5 millones de euros.

El objeto de la convocatoria es conceder ayudas para financiar proyectos que combinen acciones de formación, orientación, empleo o cualquier otra medida que mejore de forma significativa la empleabilidad de las personas participantes en los mismos.

**Requisitos**
Podrán solicitar las subvenciones a que se refiere esta convocatoria las siguientes entidades:

- Diputaciones Forales y Sector Público Foral
- Ayuntamientos de Euskadi y entidades del sector público local.
- Entidades del Sector Público de la CAPV.
- Agencias de Desarrollo Local o Comarcal y entidades de asociación de las mismas.
- Entidades de formación privadas sin ánimo de lucro inscritas en el Registro Vasco de Entidades de Formación.
- Entidades de formación públicas dependientes del departamento de Educación o del Departamento de Desarrollo económico e Infraestructuras.
- Entidades con sede o delegación en la CAPV cuya actividad mercantil esté subordinada preferentemente a un fin social, que hayan reinvertido en los últimos diez años al menos el 70% de sus beneficios en la consecución del fin social de la entidad.

**Formalización**
Las solicitudes se presentarán de forma telemática a través de la aplicación informática LAN-F.

Las solicitudes serán estudiadas por orden de presentación y serán aprobadas en el mismo orden aquellas que cumplan los requisitos y condiciones previstos en la convocatoria, hasta el agotamiento de los fondos.

La fecha de inicio para solicitar estas ayudas será el día siguiente al de la publicación de esta convocatoria en el BOPV y podrán solicitarse hasta el 31 de octubre de 2017.

## Empleo y Políticas Sociales

**EL GOBIERNO VASCO APRUEBA UN NOVEDOSO PROGRAMA DE RETORNO JUVENIL AL QUE DEDICARÁ 1.766.667 EUROS**

La Consejera de Empleo y Políticas Sociales, Beatriz Artolazabal ha trasladado al Consejo de Gobierno el acuerdo del Consejo de Administración de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, por el que se aprueba para el año 2017 la convocatoria de Ayudas al Retorno Juvenil destinadas a la contratación de personas jóvenes en centros de trabajo de la CAPV. En total se destinarán 1.766.667 euros.

Se trata de un nuevo programa pionero, que fomenta el empleo de calidad para permitir la vuelta a Euskadi de menores de 35 años que se encuentren trabajando en otro país u otra comunidad autónoma. La línea de ayudas será doble: por un lado las empresas vascas que contraten a menores de 35 años vascos que lleven al menos 12 meses trabajando fuera recibirán una subvención económica destinada a abonar parte del salario; y por otra las y los jóvenes contratados podrán recibir una ayuda para sufragar los gastos de desplazamiento.

Las ayudas a las empresas serán concedidas a aquellos contratos que tengan al menos un año de duración y se concederán pluses a las empresas que firmen contratos indefinidos.

### Requisitos

Para poder beneficiarse de estas ayudas, las personas de menos de 35 años que contraten las empresas vascas (con domicilio social y fiscal en la CAPV o centro de trabajo radicado Euskadi), deben cumplir los siguientes requisitos:

- Tener vinculación con la Comunidad Autónoma del País Vasco. Se entiende que tienen vinculación con Euskadi aquellas personas que cumplan los siguientes requisitos:
  - Haber nacido en la CAPV.
  - Acreditar vecindad administrativa en la CAPV, inmediatamente anterior a la salida al exterior, de al menos dos años.
  - Haber cursado estudios de forma presencial y haber obtenido alguna titulación oficial en la CAPV.
- Estar residiendo en el extranjero o fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco durante al menos los 12 meses anteriores a la fecha de inicio del contrato laboral.
- No haber trabajado en la Comunidad Autónoma del País Vasco durante al menos los 12 meses anteriores a la fecha de inicio del contrato laboral.
- No haber tenido vinculación laboral previa con la empresa beneficiaria contratante o con cualquier otra perteneciente al mismo grupo empresarial.

- Disponer de un perfil profesional adecuado para el desempeño del puesto ofertado.
- Adquirir un compromiso de permanencia profesional y de residencia en la Comunidad Autónoma del País Vasco, con alta en el padrón que corresponda dentro de los primeros 30 días tras el inicio del contrato, que deberá mantener, al menos, por toda la duración del contrato.
- Haber declarado su voluntad de retorno a la Comunidad Autónoma del País Vasco y estar inscrita como demandante de empleo en un Servicio Público de Empleo. Paso que se puede dar antes de concretar el contrato laboral.
- Estar desempleada en el momento de formalización del contrato.
- Pertenecer a alguno de los siguientes grupos, en función de la titulación o de los estudios realizados:
    - Titulación Universitaria:
    - Titulación No Universitaria:
        - Ciclos Formativos de Grado Superior (FPII)
        - Ciclos Formativos de Grado Medio (FPI) o Formación Profesional básica.
        - Certificado de profesionalidad.
    - Educación Secundaria Obligatoria.
    - Sin Estudios.
- Tener la condición de participante en el Programa de Retorno Juvenil con carácter previo a su contratación, en los términos dispuestos en el párrafo siguiente.

**Formalización**
Las solicitudes deberán presentarse, mediante el modelo oficial que se encontrará disponible en http://www.lanbide.net.

Las solicitudes serán estudiadas por orden de presentación y serán aprobadas en el mismo orden todas aquellas que cumplan los requisitos y condiciones previstos en la convocatoria, hasta el agotamiento de los fondos.

El plazo para solicitar la subvención por contratación de personas jóvenes comenzará el día siguiente al de la publicación de esta convocatoria en el BOPV y concluirá el día 10 de noviembre de 2017. Para la solicitud de la subvención por gastos de desplazamiento, el plazo comenzará en cada caso el día siguiente a la formalización del contrato laboral y finalizará el 31 de enero de 2018.

## Educación

### PROGRAMA DE MOVILIDAD DEL PERSONAL INVESTIGADOR DOCTOR

El Consejo de Gobierno ha aprobado en el día de hoy, y a propuesta de la consejera de Educación, la Orden de convocatoria del programa de movilidad del personal investigador.

Con un importe global de 120.000 euros, esta convocatoria concede ayudas para la realización de estancias –con dedicación exclusiva- en centros de investigación, con el fin de impulsar la movilidad geográfica del profesorado universitario e investigadores de los organismos y centros de I+D+i, y mejorar sus capacidades y la competitividad de los grupos de investigación.

Serán beneficiarias de estas ayudas las entidades acreditadas como Agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación. El personal investigador que mantiene una vinculación laboral con esta entidad solicitante de la ayuda será la que realice la estancia en un centro de investigación de fuera de Euskadi. Este personal deberá ser doctor, y con una antigüedad mínima de dos años en la plantilla de la entidad beneficiaria.

Durante su estancia en el centro de destino, el personal investigador deberá desarrollar un proyecto de investigación que se encuentre integrado en la línea de trabajo del equipo receptor u otro tipo de actuaciones tendentes al establecimiento de intercambios y vínculos científicos de alto nivel. Esta estancia, de una duración comprendida entre dos y seis meses, se realizará dentro del año 2018.

Para este año 2017 –mediante la convocatoria del pasado año- 21 investigadoras e investigadores vascos han obtenido ayudas para realizar su investigación en centros de destino ubicados en países como Reino Unido, Polonia, Rusia, Noruega, Estados Unidos de América, Canadá, Australia o Argentina. De entre ellos y ellas, 17 eran personal investigador de la UPV/EHU, otros dos de Centros de Investigación Básica y de Excelencia (BERC), y los dos restantes de Centros de Investigación Cooperativa (CIC).

## Educación

### 146.250 EUROS PARA REFUERZO EN LENGUA EXTRANJERA EN CICLOS FORMATIVOS DE FP

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, la Orden por la que se convocan subvenciones, para realizar cursos de refuerzo en lengua extranjera en centros privados concertados que imparten ciclos formativos, durante el curso 2017-2018.

Con un importe global de 146.250 euros, esta convocatoria subvenciona la impartición de cursos de lengua extranjera al alumnado de ciclos formativos de Formación Profesional, que se realicen en el propio centro, y fuera del horario lectivo. Estos cursos deberán tener una duración mínima de 80 horas y máxima de 100.

Estos cursos se destinarán especialmente a trabajar la competencia comunicativa de las destrezas orales del alumnado, fomentando la práctica conversacional y las exposiciones orales. Podrán participar en ellos los alumnos y alumnas, tanto de ciclos de Grado Medio como de Grado Superior, matriculados en los centros concertados organizadores de los cursos. Para configurar un grupo subvencionable a través de esta convocatoria, será necesario un mínimo de 10 alumnos y un máximo de 20, por cada idioma.